

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Behin-behineko onespena ematea gizarte zerbitzuen euskal sistemaren zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arautzen duen udal ordenantzari eta gizarte zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskalari

Legutioiko Udalak, 2025eko urriaren 29an egindako ohiko bilkuran, erabaki du hasierako onespena ematea ordenantza fiskal hauei:

- Gizarte zerbitzuen euskal sistemaren zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arautzen duen udal ordenantza.
- Gizarte zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, argitara ematen dira hasierako onespena jaso duten ordenantzen testu osoa, eta udal bulegoetan eta udal ediktu taula elektronikoan egongo dira ikusgai, interesdunek espedientea aztertu ahal izan dezaten eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten hogeita hamar egun balioduneko epean, aipatutako iragarkia argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Bestalde, jakinarazten da ezen, erabaki horren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada jendaurrean dagoen bitartean, erabakia behin betiko onetsizat joko dela.

Legutio, 2025eko urriaren 29a

Alkatea

NEREA BENGUA GARCÍA DE CORTÁZAR